

PEUGEOT 406 HDI

Diesela 406 motorrean

Bi motatako diesel motorrekin merkaturatu dute 406 Coupe berria

406 CUPOE HDI

Motorra: DW12 TED4 / L4
Zilindro kopurua: 4
Zilindrada (cc): 2.179
Gehieneko potentzia: (kw/cv/rpm): 92/196/4.000
Erregaia: Gasoila
Gehieneko abiadura (km/h): 205
Azelerazioa 0-100 km/h (s): 10,2
Kontsumoa hirian/ hiritik at/ konbinatua: 8,8 / 4,9 / 6,4
Balazta motak: TEVES
Aurreko /atzeko balaztak: Lau pistoidun Brembo pintza / Diskoak
Pneumátikoak: 215 / 55 R16
Gurpilak: 7 J 16
Maletatokiaren bolumena (l): 400
Salneurria: Udan salgai



■ Frantziako etxeak apustu handia egin du modelo honekin.

Kaleratu zutenetik urte batzuk pasatu badira ere, Peugeot 406 Coupe autoak izpiritu berri batekin hasi du milurteko berria, teknologiaren milurtekoa. HDi Turbo Diesel teknologia darabi-

len Common Rail motako motorrekin kaleratu dute Peugeot 406 berria, eta, gainera, partikula bereziz osatutako filtroa du.

Duela urte batzuk harriduraz hartuko litzateke cabrio, coupe edo sport modeloak diesel mo-

torrez horniturik joatea, baina egungo aurrerapenak eskura jarri dute garai batean pentsaezina zena. Horixe da Peugeotek 406 cupearekin egin duena, hain zuzen.

406aren estilo politak —Pininfarina karrozeriak izandako

imaginazioari esker— eta HDi puntako teknologiak erantzun bat ematen die coupe autoak maitatzen dituzten gidari ugariei. Bi dira coupe auto gidariak dituzten desio nabarmenenak: alde batetik, estetikoki eredu-garri izango den auto bat izatea, eta bestetik, ibilbide luzeetan auto hau atseginez gidatzea, eta horretarako, ziurtasun osoa eta prestazio handiko motorrak eskaintzen ditu auto interesgarri honek.

Bi diesel motor

Izpiritu dotorea eta teknologia gustuko dituzten gidariei, Peugeot etxeak beste bi motor berri eskaintzen dizkie ibilbide luzeetarako: alde batetik, 138 zaldi, lau zilindro eta 16 balbula dituen 2.0 litroko autoa, eta bestetik, 210 zaldi, sei zilindro eta 24 balbula dituen 3.0 litroko autoa.

VOLVO SCC PROTOTIPOA

Hau bai ziurtasuna!

Volvo SCCk kamerak eta izpi infragorriak gaineratzen ditu gidatzeko sentzazioa ziurragoa izan dadin



■ Ziurtasun neurriak kontuan hartzen dituzte Volvoko ingeniariak.

Aspaldikoa da Volvo autoak ziurra direlako ospea. Ospe hau areagotu egiten da Suediako etxearen azken asmoarekin, izan ere Volvo SCCk (Safety Concept Car) ziurtasun kontzeptu guztiak gainditzen ditu.

Volvoren ziurtasun kontzeptuak gidatzea ziurragoa izatea egiten du.

Ikusmenari garrantzi handia eman diote auto berri honetan. Volvoren SCC autoak automatikoki egokitzen du gidaria zu-

zen eserita joateko posizioa. Horretarako begien posizio kontuan hartzen du. Sentsore berezi batzuk begien posizioa aztertzen dute, eta, jasotzen duten informazioaren arabera, gidariaren eserlekua egokitzen dute, gidatzerakoan ahalik eta ikusmen handiena izan dezan. Ondoren bolantea, zoru, pedalak eta erdiko aginteak gidariaren kokapenari egokitzen zaizkio. Zerbitzu honi esker autoaren aginte guztiek kokalekuri egokiena dute, eta gidariak guztia kontrola dezake.

Kamerak

Ateetako ispiluetan eta atzeko kolpe leungailuan sentsore batzuk dauzka, zeintzuek gidaria ohartarazten duten «angelu itsuan» autorik gerturatzen bazaio.

Aipatzekoa da atzeko sabaia-

ren langan doan kamera batek autoaren atzealdea erakusten duela, eta oso erabilgarria izan daiteke maletatokia bete-betea doanean. Beste kamera bat behera begira jarri dute, eta gidariari laguntzen dio autoa atzerantz doanean bertan dagoena ikusten. Gidariak atzeko abiadura sartzan duenean, monitoreak autoaren atzealdean dagoena erakusten du.

Argiei dagokien, aurreko argiek autoaren abiadura eta bolantearen mugimenduak kontrolatzen dituzte. Horretarako, argiak mugimendura egokitzen dituzte. Autobia edo autobideetan abiadura handiz gidatzen denean, argiak luzeago eman daitezke. Bestetik, abiadura gutxian gidatzen denean, hirian edo bidegurutze batera hurbiltzerakoan, argiak laburtu eta zabal daitezke, hurbileko ikuspegi hobe izateko.

LABURREAN

Salmentak Europan

%4,9 jaitsi dira salmentak lehenengo hiruhilekoan

Eurpoako Batasunean, Islandian, Norvegian eta Suitzan 4.035.883 auto saldu dira lehen hiru hilabeteetan, iaz baino %4,9 gutxiago. Dena dela martxoko datuak ez dira txarrak izan Espainiako Estatuan eta Erresuma Batuan. Herrialde hauek autoen salmentan gorakada izan dute martxoan.

Renault

Megane berria salduena martxoan

Espainiako Estatuan iaz baino auto gehiago saldu dira urte hasieratik martxoa bitarte. Guztietan, Renault izan da auto gehien saldu duen etxea, eta Megane modelo gehien saldu den autoa. Guztira 10.961 Renault Megane saldu dira martxoan.

Sariak Alemaniako gidarientzat

Trafiko arauak errespetatzen dituzten gidariak saria izan dezakete

Alemaniako Gobernua, aseguru etxeak eta auto-fabrikatzaileak zenbait formula aztertzen ari dira trafiko arauak errespetatzen dituzten gidariak saritzeko. Azken hamarkadan istripuz hildako pertsonen kopurua jaitsi egin da. 1990. urtean Alemaniako errepideetan 11.039 lagun hil ziren, eta 2.000. urtean, 7.487. Gogorak dira Alemaniako gidariak izaten dituzten isunak, baina gauzak behar bezala egiten dituztenek onuraren bat izatearen aldeko dira zenbait. «Estatuak zigorrak bakarrik jartzea ez zait egoki iruditzen», esan du Kurt Bodewingek.

Motoak

BMW motoen azterketa

R 1.150 GS eta R 1.100 S motoen jabeek BMWko kontzesionarioetara joateko deia egin diete. Diriduenek, moto hauek akatsa dute beren software Motronicean. Akats honek katalizatzaileak egin beharreko lana murrizten du, eta horren ondorioz, CO isurketak handitu egiten dira motorra bira gutxitan dabilenean.